



**2017ko LEHENENGO HIRUHILEKOKO
EMAITZAK**



2017ko apirilak 26

- Kontratazioa
- Eskarien zorroa
- Eraitza-kontu bateratua
- Aurreikuspenak

Kontratazioa



Europar oinarritutako kontratazioa

(Milioi eurotan)

	2014 1.HH-4.HH	2015 1.HH-4.HH	2016 1.HH 1.HH-2.HH 1.HH-3.HH 1.HH-4.HH				2017 ¹ 1.HH
Kontratazioa	1.895	902	789	1.636	2.030	2.677	232
<i>book-to-bill</i>	<i>1,3</i>	<i>0,7</i>				<i>2,0</i>	

Honako hauek izan dira 2017ko lehenengo hiruhilekoan sinatutako eta eskarien zorroan sartutako kontratu nagusiak :



Utrecht (Herbehereak)



RATP (Frantzia)

Bi kontratuen balio bateratua 100 milioi euro ingurukoa da.

Kontratazio hauei mantentze lanetako proiektuen luzapen eta berriketarekin erlazionaturiko beste batzuk gehitzen zaizkie, baita MiiRaren kontratu berriak eta beste Negozioenak ere.

Horrez gain, 2017ko apirilaren 11an Zweckverband Schönbuchbahn-erako ibilgailu arinak hornitzeko eta mantentze-lanetako kontratua sinatu da.

¹ Era honetan lortutako kontratazioa: (Aldi-amaierako zorroa - Aldi-hasierako zorroa + Aldiko salmentak +/- Bestelako ezarpenak)

Kontratazioa



(jarraipena)

Utrecht

2017ko urtarrilaren 18an, Utrecht probintziak (Herbehereak) eta CAFek Urbos 100 motako 22 tranbiaren fabrikaziorako eta hornikuntzarako akordioa itxi dute. Horren bidez, gaur egun abian dagoen proiektua, 2015eko hasieran CAFi esleitutakoa, handituko dute.

Honako hauek biltzen ditu proiektuak:

- Bakoitzak 7 kotxe izango dituen 22 tranbiaren hornidura



RATP

Pariseko Garraioen Enpresa Errentari Autonomoak (RATP) CAFi esleitu dio tren-makina elektriko dualen diseinua eta fabrikazioa; hau da, dual motakoak direnez, katenarietatik lortutako energiaren bidez zein unitateari gehitutako baterien bidez funtziona dezakete.

Honako hauek biltzen ditu proiektuak:

- 12 unitateren hornikuntza, beste 6 tren-makina arte hartzeko aukera



(jarraipena)

Zweckverband Schönbuchbahn (Alemania)

2017ko apirilaren 11an, Zweckverband Schönbuchbahn (ZVS), Alemaniako garraio publikoaren agintaritzak, eta CAFek Schönbuchbahn-erako ibilgailu arinen unitateren hornikuntza eta haien mantentze integrala biltzen duen kontratua sinatu dute. Unitate elektriko berriek Böblingen - Holzgerlingen - Dettenhausen hirien arteko ZVSren sarean funtzionatu dute

Honako hauek biltzen ditu proiektuak :


- Azken belaunaldiko 3 kotxeko ibilgailu arinen 9 unitateren hornikuntza
- 19 urtez haien mantentze integrala
- Kontratuak, gainera, beste 19 tren osagarriren aukera jasotzen du



Eskarien zorroa



Zorroa mantendu egiten da
6.000 milioi euro gainerik



2017ko martxoaren 31ean, **eskarien zorroa** 6.120 milioi euro tara iritsi da, hau da, 2016eko salmenten 4,6x-koa izan da.

Zorro horrek ez du jasotzen 2017ko martxoaren 31aren ondoren egindako **kontratazio irmoa**:

- Zweckverband Schönbuchbahn (Alemania)

Gainera, CAFek oraindik 200 milioi euro inguruko guztizko balioa duten eta **sinatzeke dauden esleitutako proiektuak** ditu.

¹ 2017ko hiruhileko bakoitzeko Zorroa / Salmentak ratioa, 2016eko urteko salmenta-zifraren arabera kalkulatuta.

Emaidza-kontu bateratua



(Mila eurotan)

	2017 1.HH	2016 1.HH	Ald. %
Negozio-zifraren zenbateko garbia	340.022	281.048	%21
EBITDA	43.301	36.660	%18
Ibilgetuaren amortizazioa eta zuzkidurak	(9.552)	(8.876)	%8
EBIT	33.749	27.783	%21
Finantza-emaizta	(19.124)	(14.083)	%36
Zergen aurreko emaitza	14.624	13.701	%7
Irabazien gaineko zerga	(5.329)	(5.109)	%4
Zergen ondorengo emaitza garbia	9.295	8.592	%8
Kanpoko bazkideen emaitza	(269)	(318)	(%15)
Sozietate nagusiari egoitzitako emaitza	9.564	8.910	%7

2017ko martxoaren 31an, negozio-zifraren zenbateko garbia 340.022 mila eurokoa da; hau da, 2016eko aldi berekoa baino 58.974 mila euro handiagoa (% 21). Igoera hori industria-jarduerak izan duen salmenten igoeraren ondorioa da. 2016ko aldi berarekin alderatuta, Brasilgo errealaren balioa handitzeagatik kanbio-tasaren efektuak salmentetan % 3ko igoera ekarri du.

Esportazioari dagokion negozio-zifraren ehunekoa % 84,3koa izan da.

Medellin, Txile eta Istanbulerako metro-unitateak eta CPTM, Transpennine eta Toluca aldierietako trenak, dira 2017ko martxoaren 31an amaitu den 3 hilabeteko aldi honetan abian dauden fabrikazio-proiektu nagusiak.

Emaidza-kontu bateratua



(Mila eurotan)

	2017 1.HH	2016 1.HH	Ald. %
Negozio-zifraren zenbateko garbia	340.022	281.048	%21
EBITDA	43.301	36.660	%18
Ibilgetuaren amortizazioa eta zuzkidurak	(9.552)	(8.876)	%8
EBIT	33.749	27.783	%21
Finantza-emaizta	(19.124)	(14.083)	%36
Zergen aurreko emaitza	14.624	13.701	%7
Irabazien gaineko zerga	(5.329)	(5.109)	%4
Zergen ondorengo emaitza garbia	9.295	8.592	%8
Kanpoko bazkideen emaitza	(269)	(318)	(%15)
Sozietate nagusiari egoitzitako emaitza	9.564	8.910	%7

2017ko martxoaren 31an, EBITDA marjina 43.301 mila eurokoa izan da; 2016eko aldi berean, ordea, 36.660 mila eurokoa izan zen, aurtengo zifra % 18 handiagoa izanik.

2017ko martxoaren 31an, Finantza-emaizta 19.124 mila euroko galerakoa izan da; hau da, 2016eko aldi berekoa baino % 36 handiagoa.

Irabazien gaineko zergaren aurreko ekitaldiko emaitza 14.624 mila eurokoa izan da 2017ko martxoaren 31an; hau da, 2016eko aldi bereko irabazia baino % 7 handiagoa.

Zergen ondorengo emaitza garbia 9.295 mila eurokoa izan da 2017ko martxoaren 31an; hau da, 2016eko aldi bereko irabazia baino % 8 handiagoa.

Sozietate nagusiari egotzitako emaitza, 2017ko martxoaren 31an, 9.564 mila eurokoa izan da; hau da, 2016eko aldi bereko irabazia baino % 7 handiagoa.

Aurreikuspenak



Konpainiak aurreikuspenak mantentzen ditu¹

- Urteko hazkunde-tasa konposatuak (*CAGR*) bi digitu izan ditu 2017-2018an salmentei dagokienez, 2016ko kontratazio historikoan oinarrituta.
- Irabaziaren joera gorakorra hurrengo ekitaldietan honako hauetan oinarrituta:
 - a) Jardueraren igoera; bereziki, Europako fabrikazio-lantegietan.
 - b) Kontratazio-marjina historikoekin lerrokatuta egongo da.
 - c) Eskarien zorroak gauzatze-arrisku txikiagoa.
 - d) Dagoeneko lehen aurrezki-seinaleak ematen hasi diren lanen bikaintasuna eta eragingarritasuneko programak:
 - Hobekuntza fabrikazioaren eta industrializazioaren kudeaketa.
 - Hornitzaileen lanaren optimizazioa kalitateari eta entreegi dagokienez.
 - Erosketen globalizazioa eta kudeaketaren hobekuntza.
 - Inbentariatuaren kudeaketa eragingarria.
- Egungo eskari-zorro historikoari eusteko helburua. Horren oinarria 5.500-6.000 milioi euroko eskaintza irekien bolumen egonkorra izango da.



¹ Aurreikuspen horiek 2017ko otsailaren 27an argitaratutako "2016ko Emaitzen Aurkezpena" dokumentuan jasota daude

Dokumentu honek informazio-helburua du soilik.

Dokumentu honetan dagoen informazioa ez dute hirugarren independenteek egiaztatu; ildo horretatik, ez dago informazioaren edo bertan adierazitako iritzien edo aitopenen inpartzialtasunari, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari buruzko berme zehatzik.

Dokumentu honek etorkizuneko aurreikuspenei eta estimazioei buruzko agerpenak izan ditzake eta horiek ezingo dira errendimenduko berme edo etorkizuneko emaitza gisa hartu arriskuak eta gorabeherak izan baititzakete. Horietako asko CAFen kontroletik kanpo daude eta gerta daiteke emaitzak errealak aipatutako aurreikuspenetan eta estimazioetan adierazitakoetatik materialki bat ez etortzea.

Beraz, inola ere ezingo da CAFeko akzioak saldu, erosi edo akzioetan parte hartzeko, edo beste edozein balio edo inbertsionarako aholku edo gomendio gisa hartu. Gainera, helburuen artean ez du produktu edo finantza-zerbitzurik eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritzia dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta alde aurretik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendaurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharririk hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren arrisku eta erantzukizun eskusiboaren eta bakarraren mende geratuko da. CAFek, haren filialek edo ordezkariak ez dira edozein kalteren arduradunak izango eta ez dute dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik beren gain hartuko.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa erabat isilpekoak dira eta ezin izango dira CAFek alde aurretik idatzizko baimena eman gabe kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (osorik edo partzialki).